

Europak Euskadiko udalen esku utzi du berdintasunerako tokiko politiketako lidergoa

EUDEL BERDINTASUNERAKO LANTALDEKO PRESIDENTEA IZANGO DA EUROPAKO UDALEN ETA ESKUALDEEN KONTSEILUAN

- Izendapena CMREko Zuzendaritza Batzordeak egin du ofizial, ostegunean eta ostiralean Munichen egindako bileran. Bertan, hain zuzen ere, Euskadiko Udalen Elkarteko elkarteburuak parte hartu du.
- **Ibone Bengoetxeak** nabarmendu du izendapena **“aitorpen partekatua”** dela, euskal instituzio guztien artean lankidetzan egindako lanagatik. **“Maila askotako gobernantzarako eta lankidetzarako dugun eredia Europa osoan ezartzeko moduko adibidea da gaur egun”**.

Bilbon, 2015eko ekainaren 26an. Gaur goizean, Europako Udalen eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) EUDELen esku utzi du bertako Berdintasuneko Lantaldeko presidentetza (*Standing Committee for Equality*). Hain zuzen ere, herrialde kideetako berdintasunerako tokiko politikak koordinatzen dituen organo goren da.

Gaur egun, Galdakaoko alkatea, **Ibon Uribe**, EUDELeko Batzorde Eragileak dimentsio guztietako berdintasunerako daukan ordezk

Bengoetxeak Euskadiko maila askotako gobernantza-eredua balioetsi du, baita Europa mailako lanerako tresna gisa daukan ahalmena ere. ***“Emakume eta gizonen berdintasuna lehentasuna da garapen globalari begira. Aurrera egiten jarraitzeko, zenbait herrialdek partekatutako estrategiak eta aliantzak ere aplikatu beharko ditugu”.***

Euskadi-Suediako berdintasun jarduera onak

Hurrengo bi urteetan, 2017. urtearen amaierara arte, Euskadiko Udalen Elkarateak presidentetza izango du bere ardurapean, berdintasunaren arloan berarekin lankidetzat harreman ezin hobea daukan elkarte suediarrek lekukoa eman ostean. Europako Iparraldeko herrialdeak aurreratuenetakoak dira berdintasunaren arloan, eta Euskadiko udalek Europako Iparraldeko eredurantz begiratu dute betidanik.

Bi elkarteek helburuak partekatzen dituzte, eta erreferentia dira berdintasunerako lanean. Izan ere, bertako bi presidenteak, **Ibone Bengoetxea** eta **Ewa Samuelsson**, nazioarteko zenbait **forotako** hizlari gisa gonbidatu dituzte; esate baterako, 2013an Parisen egindako Emakume Liderren Munduko Biltzarrean edo, oraintsuago, iazko abenduan, Erroman egindako Europako Herriartasunari buruzko Biltzarrean.

Europako Lantaldeko presidentetza suediarrek ere **‘jarduera egoki’** moduan aitortu ditu EUDELek gainerako instituzioen laguntzaz sustatutako zenbait ekimen aitzindari. Euren artean, honakoak nab